
Pertseberantziako elkarrekintza

Mendizabal, Garbiñe

Gipuzkoako Foru Aldundia
garbinemendizabal@gipuzkoa.eus

E

Euskararen etorkizuna irudikatzeko e5 dinamikan ametsa izan dugu: Euskal komunitateak lortu du botere trinkoa, gutxienez esparru estrategiko batzuetan: ezagutzan eta atxikimenduan, lankidetzan publiko-sozialean, hiztun komunitatearen garrantzia, eta, euskararen lurralde osoa hartzen da. Horretarako bi tresna sendo: hiru euskal administrazioak batzen dituen administrazio komun bat, politikak adostu eta erabakitzeko; eta, Hizkuntza Eskubideen Protokoloa erreferentziala Europan. Pertseberantzia eta Herri izaeraren sena eta euskara lotura landuz, bidegurutzea atzean utzi.

Giltza-hitzak: Ezagutza. Atxikimendua. Lankidetzan publiko-soziala. Hiztun komunitatea. Euskararen lurralde osoa. Pertseberantzia. Herri izaeraren sena eta euskara lotu.

Egun on!

Gaur hemen nire gogoetaren berri emateko gonbitea jaso nuenean, Gasteizen egin genuen lehendabiziko saioarekin gogoratu nintzen. Izan ere, euskararen etorkizuneko eszenarioak elkarrekin eraikitzearen gonbite horrek jakinmin handia sortu zidan eta horregatik animatu nintzen; pentsatu nuen etorkizunerako gakoak eta bideak ikasiko nituela, ikusiko nituela. Ikasteko eman nuen izena, egia esan behar bada.

Baina, aurreneko saio hartan, amets egitera gonbidatu gintuzten. Euskararen etorkizuna irudikatzeko, han geundenok zer ikusten genuen, edo zer ikustea gustatuko litzaigukeen; horren gainean amets egitea, alegia.

Hau da, jakintsuengandik baino besteengandik ikastea, elkarrekin ikastea.

Lehen saio hartatik hona jaso egin dugu denok, elkarrengandik, hainbat iritzi, pentsamendu eta ikusmolde. Ariketa horrekin gaiarekiko dugun jakinduria aberastu, hazi eta osatu egin dela esango nuke.

Denok eman, eta denok jaso, horixe gertatu da; iruditzen zait izandako bizipenek eta ondu ditugun proposamenek denok sintonia bertsuan jartzeko aukera eman digutela.

Lehen aipatu da hamarkada honen hasieran biziberritze prozesua ahulezia batzuk erakusten hasi zela, eta bidegurutzearen kezka zabaldu zela euskalgintzako eragile eta erakundeon artean. Uste dut azken urteotan lana sendo egin dugula denok, eta ari garela prozesua indarberritzeko modua aurkitzen. Alde horretatik, oso lagungarri gertatzen ari da e5 dinamika hau, eta egindako lana eskertu nahi diet Eusko Ikaskuntzari eta talde eragileari.

Bidegurutzea utzi eta aurrera egiteko, 2040ko eszenarioa irudikatu dugu. Ni kapital politikoa aritu naiz bereziki eta 22 urte barru amesten dudan egoera azaltzeko titular hau jarriko nuke: **Euskal komunitateak lortu du botere trinkoa, gutxienez esparru estrategiko batzuetan.** Hauek azpimarratuko ditut:

- Ezagutzan eta atxikimenduan: 2018tik hona sekulako urratsak egin ditu euskarak; inkesta soziolinguistikoen arabera, beste 200.000 euskaldunetik gora irabazi ditu, eta erabilera datuak etengabe ari dira gora egiten, batez ere gazteen artean.
- Lankidetzaren publiko-sozialari dagokionez, administrazioek eta gizarte eragileek elkarrekin lan egiten dute, herri izaeraren sena landu delako, besteak beste; eta gainera, agintariak aldatuta ere, hizkuntza politika ez da aldatzen datorren berri horren nahieran, blindatuta dago eta.
- Hiztun komunitateak garrantzia hartu du eta prozesuaren erdigunean kokatu da. Euskaraz jarduten da naturaltasunez edozer gairi buruz, ez dago euskara eztabaidagai eta integratzailearen tresna gisa balio du, ez gatazkarako. Euskara beharrezkoa da gero eta arlo gehiagotan, ulermena oinarri hartuta. Gainera, erreferentzialtasuna daukan aldetik, prestigioa duen faktorea da. Ausardiak jokatzeko eta erabakiak hartzeko sendotasuna eta lidergoa badago eta horrek guztiak, gainera, plan ekonomikoa du, bideragarria izateko.
- Euskararen lurralde osoa hartzen da, euskara ofiziala da lurralde denetan eta politikoki adostasun zabala dago horren gainean; euskara ez da eztabaida politikorako erabiltzen eta politikak bateratzeko aukera dago. Ikuspegi eta norabide bateratua dagoenez, plangintzak lurralde osoari begira eta norabide berean egiten dira, tokian tokiko egoerak kontuan hartuta. Hizkuntza politika koordinatua dago, erakunde guztien artean.

Lan horiek aurrera eramateko, badaude bi tresna sendo:

- Hiru euskal administrazioak batzen dituen administrazio komun bat, jarraitu beharreko politikak adostu eta erabakitzeko.
- Hizkuntza Eskubideen Protokoloa erreferentziala da Europan eta, hizkuntza politiken erdigunean txertatuta dagoenez, hizkuntza eskubideak bere eraginez bermatzen dira.

“Ametsak ote dira hauek guztiak, ala gure gizartearen nahiz geuretako bakoitzaren asmo eder eta eraginkorrenak?” Jose Maria Setien.

Pertseberantzia, jaun-andreok!

Herri izaeraren sena eta euskara lotura lantzen segitu.

Bidea definitu, aukeratu eta tinko eutsi! Pertseberantzia balio handikoa da, premiazkoa helburu zailak lortu nahi baditugu! Aurrera egiteko indarra ematen digu, zailtasunak zailtasun eta oztopoak oztopo; aurrera egin dezagun, bidea ondo zehaztuta!

Lehen esan dudan bezala, uste dut hasi garela bidegurutzea atzean uzten.

Ea gaitasuna daukagun 2040ko eszenario horretara iristeko!

Elkarrekin lan eginda, seguru nago baietz!